

KALITATE POLITIKA ETA HELBURUAK

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (EIG/GIE) 2016ko urtarrilaren 5ean sortzen da, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) ikastegiak berrantolatzeko egindako prozesuaren ondorioz. Ikastegi berriak Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa eta Eibarko Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola bildu zituen, biak ere ibilbide luzearekin hezkuntza eta ikerketa arloan. Integrazio-prozesuan bi mugarri nabarmendu daitezke: 2016ko abenduan lehen Eskola Batzarra eragin zuten bozketak egin ziren, eta 2017ko otsailean lehen aldiz zuzendaritza-talde bateratu bat aukeratu zen.

Eskolak, eta bereziki bere zuzendaritza-taldeak, kalitatearekiko eta etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa dute. Konpromiso hori honako puntu hauetan zehazten da:

- Kalitate-politika definitzen, berrikusten eta etengabe eguneratzen du, Kalitatearen Barne Bermerako Sistema (KBBS) eraginkorra dela eta aldizka ebaluatzen eta berrikusten dela ziurtatuz.
- Kalitate-politika hori Eskolako langile guztiek ulertu eta onartu dezatela baita bere Interes-taldee ere zabaldu dezala sustatzen du.
- Prozedura guztien jarraipena bermatzeko, jardun, informazioa bildu, ebaluatu eta berrikusteko sistematika bat eratzen du.

Horren ondorioz, aurrerapen nabarmen hauek egin dira azken urteotan:

- KBBSaren eskuliburua diseinatzea eta Batzordean onartzea (2018ko urtarrila)
- Sistemaren eskuliburuaren diseinuak AUDIT ziurtagiria jasotzen du (2018ko abendua)
- Ikastetxeak BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria jasotzen du (2018ko abendua)
- 2019-2022 Plan Estrategikora daraman hausnarketa estrategikoa (2019ko martxoa)
- KBBSaren ezarpenaren AUDIT ziurtagiria (2022ko abendua)
- Akreditazio instituzionala jasotzen du (2023ko martxoa)
- 2. Plan Estrategikoa egitea eta onartzea (2023-2026)

Eredu hori oinarritzat hartuz zentroari atxikitako sei Gradu, bi Gradu Bikoitz eta hiru Master ofizial kudeatzen dira, honako organo eta batzorde hauen laguntzarekin:

1. Eskolako Batzarra. Plan Estrategikoa eta Urteko Kudeaketa eta Plangintza Txostenak onartzeko ardura du. Horietan Zentroaren Kalitate Politika eta Helburuak jasotzen dira, baita KBBSaren eta titulazio desberdinen Hobekuntza Ekintzak ere. Titulazioen jarraipen-txostenak ere onartu behar ditu.

2. Zuzendaria eskolako ordezkari gorena da, eta, zuzendaritza-taldearen laguntzarekin eta, bereziki, akreditazio-arduradunen laguntzarekin, etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa hartzen du eta Ikastegiak prozesu horretan aurrera egin dezan gidatzen du.

3. Eskolako Kalitate Batzordea. Ikastegiko TKAZEL eta IIP eta ikasleen ordezkariak osatutako batzordea da, Eskolako Batzarrak izendatua. Zuzendaritza-taldearekin batera, KBBSren planifikazio- eta jarraipen-lanetan parte hartzen du, eta, gainera, kalitate-sistema horren politika, helburuak, planak, programak, erantzukizunak eta lorpenak komunikatzeko barne-tresna gisa jarduten du. Batzordearen eginkizunak honako hauek dira:

- a) KBBS diseinua, ezarpena, abian jartzea eta jarraipena bultzatzea.
- b) Prozesuei jarraipena egitea, dagozkien adierazleen bitartez.
- c) Eskolako zuzendaritzari batzordearen proposamenak aurkeztea.
- d) Eskolaren urteko helburuak jaso eta, behar denean, haien formulazioa koordinatzea, eta helburuok betetzeko prozesuari jarraipena egitea.
- e) Gogobetetze inkesten emaitzak jasotzea eta, haietatik abiatuta, hobekuntzak proposatzeko irizpideak ematea.
- f) Urteko jarraipen txostena egitea KBBSren azterketa eta berrikuspenetik abiatuta, eta hobetzeko ekintzak proposatzea, titulazioetarako ezarritako helburuak bete daitezen.
- g) Titulazioen eta Eskolaren beraren akreditazioa lortzen eta aldiro berritzen laguntzea.
- h) Eskolako kalitate politika eta helburuen berri emateko tresna izatea, eta helburuok bete daitezen eta unibertsitateko kideen artean zabal daitezen bermatzea.
- i) Titulazioen curriculumak garatzeko plangintza eta haren zehaztapena egiten laguntzea.
- j) Irakasleek gradu berrietako curriculumak hobeto garatzeko tresnak eta metodologiak ikas ditzaten sustatzea.

- k) Eskolako kideek eta interes taldeek kalitateari eta ebaluazioari buruzko prestakuntza har dezaten bultzatzea.
- l) Laguntza ematea zuzendaritzari KBBsrekin zerikusia duten gaietan.
- m) Eskolako Batzarrari erabakiak proposatzea, onar ditzan, betiere haren eskumenen arloan.
- n) Irakasleen irakaslan ebaluatzeako programaren txostenak egitea (Docentiaz).
- o) Estatutuek eta horiek garatzeko arauak emandako gainerako eginkizun guztiak, edo Eskolako Batzarrak eskuordetzen dizkionak.

4. Titulazio-koordinatzaileak. Irakasleak dira, zuzendariak aukeratuak eta Eskola Batzarrak izendatuak. Zeregin nagusiak hauek dira: gradua koordinatzea (ikastaroko koordinatzaileen laguntzarekin), Jarraipen Txostena egitea eta Kalitate Batzordean parte hartzea, bertako kide baitira.

5. Masterreko arduradunak. Masterreko irakasleen artean izendatzen dira, eta beren Batzorde Akademikoaren laguntzarekin koordinatzen dituzte irakaskuntzaren alderdi guztiak. Gainera, onarpena, praktikak eta kudeaketa ekonomikoa kudeatzen dituzte. Masterreko arduradunak edo Batzorde Akademikoko kide batek ere parte hartzen du Kalitate Batzordean.

6. Prozesuaren arduradunak. Zuzendaritza-taldeko kideak edo ardura-postuak betetzen dituzten administrazio eta zerbitzu-tako langileak dira. Bere zeregina da dagokion prozesuko prozedurak gidatzea, urtero berrikustea eta hobekuntzak proposatzea.

Xedea, ikuspegia eta balioak

Xedea

EHUren EIG/GIE unibertsitate-zentroa da. Bere Xedea da hezkuntza eta ikerketa, burutzea, industria eta eraikuntza ingeniartzaren alorrean, bai eta jakintza sortzea, garatzea eta hedatzea ere, gizartearen zerbitzura. Agente aktibo bat da, bere inguruko egitura ekonomikoa eta soziala sendotzen laguntzen duena, kalitatezko kudeaketaren eta gizarte eta ingurumen erantzukizunaren irizpideetan oinarrituta.

Ikuspegia

GIEren helburuak dira:

- Gizarteak ospe handiko ikastegitzat hartzea, bere irakaskuntza eskaintzaren eta ikerketaren kalitateagatik.
- Ikasleek erreferentziazko zentro gisa balioztatzea, jaso duten prestakuntzagatik, trebetasunak eta gaitasunak sustatzen dituen eta berrikuntzaren, gizarte erantzukizunaren, ahaleginaren eta integritatearen kultura transmititzen duena.
- Erakundeek, teknologia zentroek eta industria eta eraikuntza ingeniartzaren arloko enpresek irakaskuntza alorreko erreferentzia ikastegitzat hartzea, lankidetzaren eta ezagutzaren transferentzia ere bultzatzen dituen, beraien garapenari lagunduz.
- Lehenetsuna ematea pertsonen, eskolako kolektibo guztien ilusioa eta motibazioa indartuko dituen proiektu komun baten partaide izan daitezen, eskolako kide izatearen sentimendua garatze aldera.

Balioak

Erakunde orok ditu bere izaera islatzen duten eta gainerakoengandik bereizten dituen berezko ezaugarriak. Balioak erakundearen berezko printzipioak eta sinesmenak dira, bere portaeraren eta erabakien oinarrian daudenak, eta haiek baldintzatzen dituztenak, haiengan eraginez. GIEren Balioak dira:

- Profesionaltasuna, integritatea eta erantzukizun partekatua.

- Eraginkortasuna baliabideak erabiltzean.
- Malgutasuna eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna.
- Sentsibiltatea eta konpromisoa gizartearen premiekin eta ingurumenarekin.
- Konpromisoa gizarte eta kultur ingurunearekin eta euskararen erabilera bultzatzearekin.
- Etengabeko hobekuntzarako bokazioa.

Ardatz Estrategikoak

Eskolaren plan estrategikoak ardatz estrategiko hauek ditu:

1. UNIBERTSITATE PRESTAKUNTZA
2. IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA
3. PERTSONAK
4. KUDEAKETA ARDURATSUA

Zuzendaritza taldeak bultzatutako hausnarketa estrategiko batetik abiatuz, Interes-taldeekin lankidetzan, lehen aipatutako Eskolaren Ikuspegiaren aurrera egiteko eta ikuspegi horretara hurbiltzeko funtsezko helburu estrategikoak zehazten dira.

Iker Laskurain Iturbe
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Zuzendaria